

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: XXVII. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRRIENTZAT

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXVII. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA emateko prozedura arautzea.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) 35 urte bete gabe izatea.
- b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.
- c) Aurreko edizioetako Igartza Beka sariaren titularra ez izatea.
- d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.
- e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.
- f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Ordainketa modu honetan egingo da CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak diru ekarpena egin ondoren:

.- 5.000,00€, irabazlea izendatzen duen alkatetza-ebazpena ematen denean.

- 5.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Proiektuak aurkezteko epea GAO-n argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 30a amaituko.

Eskaerak modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:

.- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria beteta.

.- On-line, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.beasain.eus